



Haur Hezkuntza

2. Modulua: ESKOLA ETA KURRIKULUMA DIZIPLINARTEKO LANA (DAL) EGITEKO GIDA

2023-2024

1.- DALaren aurkezpena.

II. Modulua, "Eskola eta curriculum", Haur Hezkuntzako Graduoko 1. mailan gauzatzen da, bigarren lauhilekoan.

I. Moduluan bezala, Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntzaren (AOI) metodologia erabiliko da Moduluko Diziplinarteko Lana egiteko.

Moduluko Diziplinarteko Lanak 5 kredituko balioa du. Kreditu horiek honako irakasgai hauei dagozkie:

- *Didaktika Orokorra*
- *Hezkuntza Psikologia*
- *Arte Plastikoak eta Ikusizko Kultura Haur Hezkuntzan I*
- *Musika Adierazpenaren Garapena I*
- *Garapen Psikomotorra I*

DAL-a antolatzerakoan ondorengo arauak jarraituko zaie:

- 1) Lana egiteko ikasle taldeak lauhilekoaren hasieran argitaratuko dira eta talde bakoitzari tutore bana esleituko zaio. Taldeak 5-6 ikaslez osatuak egongo dira eta tutoreak aipatutako irakasgairen bateko irakasleak izango dira.
- 2) Lanaren lehenengo fasea, 1. go astean hasiko da.
- 3) Lana egiteko, ikasleek 125 ordu behar izango dituzte (5 kreditu), 15 asteetan banatuta. Horietatik 60 presentzialak izango dira, 2 aste osoetan (40 ordu) eta beste bi aste-erdian (20 ordu) ikasleek saio presentzialak izanik irakasgai guztietan, bai magistraletan zein praktikoetan. DAL-aren gainerako orduak, 65 ordu, ez presentzialak izango dira. Ikasleak astean batez beste 8 ordu eskaini behar dizkio lanari.
- 4) Gutxienez hiruna tutoretza saio egingo dira talde bakoitzarekin.

2.-Arautegia

DAL-a egiteaz salbuestea

- 1) Graduako ikasleek DALa egin beharko dute, baldin eta modulu bateko hiru irakasgaitan matrikulatuta badaude, gutxienez. Gainerako kasuetan, ikasleek ez dute DALa egin beharrik izango.
- 2) DAL-a egin behar ez dutenen kasuan, irakasgaiaren nota 10en gainean izango da, DAL-aren ehunekoa aplikatu gabe.
- 3) Aldi berean bi modulu egin behar dituzten ikasleek (irakasgai batzuk baliozkotuta edo gainditu gabe dauzkatelako) irakasgai gehien egiteke dituzten moduluko DALa egin beharko dute soilik. Bi moduluetan egin beharreko irakasgai kopurua bera bada, goreneko mailako moduluan egingo dute DAL-a.

Aurreko kasuetako edozeinetan gomendatzen da moduluaren edo titulazioaren koordinatzailearekin hitz egitea, egoeraren berri emateko.

Titulazioa modularra denez, eta lanak diziplina arteko edukia duenez, ikasleak jarraikako ebaluazio sisteman parte hartu ezin badu justifikatutako arrazoiengatik (lan-arrazoiak, senideak beren kargura izatea, %33ko urritasuna edo hortik gorakoa, maila altuko kirolaria izatea, bidaiak egitea edo arduraldi handia eskatzen duen jarduera artistiko edo kulturalen bat garatzea, goi mailako beste ikasketa batzuekiko bateragarritasuna, kargu politiko, sindikal, elkarte edo GKE-ren bateko karguren batekiko bateragarritasuna edo bestelakoak), DAL horrekin erlazionatutako proposamena egin beharko du, eta ahoz defendatu, modulu bakoitzean horretarako zehaztuko den datan.

Egoera horretan dauden ikasleak, edo ez presentzial eredura pasatzea erabakitzen dutenek, moduluko koordinatzailearekin (edo titulazioko koordinatzailearekin) jarri beharko dira harremanetan otsailak 27a baino lehen, eta honek behar dituzten informazioak emango dizkie, hala nola, lana entregatzeko eta defendatzeko data zein tokia (defentsan epaimahai moduan koordinatzailea eta beste moduluko irakaslea egongo dira). Lan horretarako ez da egongo tutorerik eta ikasleak dagokion arloko irakaslearengana jo beharko du zalantzak argitzeko.

Proba horren balioa modulu honetan DAL-ari dagokion berdina izango da, hau da, %16a irakasgai bakoitzaren kalifikazioan. DAL horren kalifikazioa ohiz kanpoko deialdira arte gordeko da (ekaina-uztaila).

Ikasle bat Ez ohiko deialdira DAL lanarekin badoa, koordinatzaileak defendatzeko

data, lekua eta orduaz informatuko du ikaslea (defentsan epaimahai moduan koordinatzailea eta moduluko beste irakasle bat egongo dira).

3.- Gaitasunak eta Ikastearen emaitzak

3.1. Moduluaren Oinarrizko Gaitasunak

UPV/EHU-ko zeharkako gaitasunen katalogoan (2019)¹ oinarrituz, Diziplina Arteko Lan honetan landuko diren zeharkako gaitasunak egoera edo zeregin konplexu honen aurrean ikasleek egin beharreko ekintzak bezala ulertzen dira. Katalogo horretako hainbat gaitasun landuko diren arren, bereziki bost gaitasunen lanketan jarriko dugu fokua. Horretaz gain, Garapen Jasangarrirako Hezkuntza (GJH) Garapen Jasangarrirako Nazio Batuek proposatutako Helburuak lortzeko lanabes gakoa da. Hau jorratzea aldera, UNESCOren gidan (2017)² Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) lantzeko oinarrizko konpetentziak eta Garapen Jasangarrirako Helburu bakoitzarekin lotutako ikaskuntza emaitzak plazaratu zituen. Proposamen horretan oinarrituz Disziplina Arteko Lan honetan ondorengoak landuko ditugu:

¹ UPV/EHU, (2019). ZEHARKAKO GAITASUNEN KATALOGOA. Eskuragarri hemen: <https://www.ehu.es/documents/1432750/12757375/Zeharkako+gaitasunen+katalogoa.pdf/>

²UNESCO (2017). Educación para los Objetivos de Desarrollo Sostenible. Eskuragarri hemen: https://web.unican.es/unidades/igualdad/SiteAssets/guia-de-recursos/responsabilidad-social-universitaria/EdS_ODS.pdf

1. Taula. Zeharkako gaitasunak eta ikastearen emaitzak

ZEHARKAKO GAITASUNAK	IKASTEAREN EMAITZAK
<p>ZG1 (GIH 12). Ekintza enpatikoa eta arduratsua lantzea, herri, herrialde eta mundu mailan sortutako gizarte, ingurumen eta ekonomia erronken aurrean, bai eta egungo gizartearen oinarritzko balio demokratikoen aurrean ere.</p>	<p>IE1. Diziplinarreko proposamenak adierazten ditu giza garapen jasangarriari lotutako arazoei erantzuteko.</p> <p>IE2. Garapen jasangarriago baterako aukerak eta erronkak identifikatzen ditu, testuinguru edo ikasketa arlo jakin bati lotutako ekintzen diseinuan.</p>
<p>ZG2 (GIH 4). Ikasleak ulertzea bizitzan zehar denontzako hezkuntza- eta ikaskuntza-aukerek (ikaskuntza formala, ez-formala eta informala) duten rol garrantzitsua, pertsonen bizitza hobetzeko eta GIHak lortzeko garapen jasangarriaren bultzatzaile nagusi diren aldetik.</p>	<p>IE3. Ikasleak ulertzen du hezkuntzak mundu jasangarriagoa, bidezkoagoa eta baketsuagoa sortzen lagun dezakeela.</p> <p>IE4. Ikaslea gai da, partaidetza-metodoen bidez, beste batzuk motibatuz eta ahalduntzeko, hezkuntza-aukerak eska eta erabil ditzaten.</p>
<p>ZG3. Hitzezko eta ez-hitzezko hizkuntzaren erabilera lantzea interakzio testuinguruetan, esanahiak interpretatzeko eta trukatzeko, modu jakin batean jokatuz.</p>	<p>IE5. Zuzentasun linguistikoa (gramatikala eta ortografikoa) jarraitzen du.</p> <p>IE6. Lengoia espresibo ezberdinen adierazpena entzuleriari egokitzeko gai da, aurkezpen publiko batean.</p>
<p>ZG4. Informazio zientifikoaren trataeraren fidagarritasuna bermatzeko informazio iturriak jarrera kritikoz eta arduraz erabiltzeko modua lantzen da.</p>	<p>IE7. Askotariko datu base zientifikoaren eta web atari espezializatuen informazioa iragazten du, bilaketa irizpideekin eta zereginean planteatutako helburuekin bat etorrira.</p> <p>IE8. Egoki baloratzen du hainbat inguruetan eskuratutako informazioa, haren fidagarritasuna eta garrantzi zientifikoa oinarri hartuta.</p>

ZG5. Talde batean integratzeko eta harremanak izateko moduak lantzea, helburu komunak lortzeko lankidetzan jardunez, informazioa trukatzuz, erantzukizunak eta lidergo funtzioak hartuz, zailtasunak konponduz, eta taldearen hobetzeko eta garatzeko ekarpenak eginez.

IE9. Errespetuzko jarrera erakusten du taldearen barruan azaldutako ideiak adieraztean eta hartzean.

IE10. Dagozkion zereginak erantzukizunez betetzen ditu, helburu eta emaitza kolektiboak lortzeko.

IE11. Gatazkei irtenbide bat emateko konponbide kolektiboak bilatzen laguntzen du, adostutako helburuak lortzeko.

arazo-egoerari modu integratuan erantzun ahal izateko (ikusi 2. Taula).

2. Taula. Diziplinarteko gaitasunak eta ikastearen emaitzak

DIZIPLINARTEKO GAITASUNAK	IKASTEAREN EMAITZAK	Psikologia	Didaktika	Arte	Musika	Psikom.
<p>G1. Haurren garapeneko ezaugarrien ezagueran oinarritutako hezkuntza esku-hartze proposamenak formulatzea, bakarka edo taldean, haurren arteko eta haurren eta helduen arteko elkarrekintza sustatzeko eta ohiturak sustatzeko (autonomia, askatasuna, jakin-mina, behaketa, esperimentazioa, imitazioa, arauen eta mugen onarpena, eta jolas sinbolikoa eta heuristikoa). (Psikologia)</p>	<p>IE12. Hezkuntzako esku-hartze egituratuaren diseinuan, berdinekiko eta helduekiko elkarrekintza eta autonomiaren, askatasunaren, jakin-minaren, behaketaren, esperimentazioaren, imitazioaren, arauak eta mugak onartzearen, jolas sinbolikoaren eta heuristikoen inguruko ohiturak hartzea sustatzen duten alderdi teorikoak identifikatzen ditu.</p> <p>IE13. Hezkuntza-erabakiak ahoz eta idatziz defendatzen ditu, eta, horretarako, hezkuntzaren psikologiaren berezko ezagutzetan eta 0-6 urte bitarteko aldiaren ezaugarrietan oinarritzen du bere argudiaketa.</p>	X				

<p>G2. Haur hezkuntzako etapari dagozkion ikasgela barruko zein kanpoko hezkuntza-prozesuak aztertzea eta ulertzea, prozesu integratu eta berritzaileak diseinatzeko. (Didaktika)</p>	<p>IE14. Haur Hezkuntzako hezkuntza-arretarako, oro har, eta irakaste-ikaste prozesu espezifikoetarako proposamen integratuak diseinatzea.</p> <p>IE15. Haur Hezkuntzaren gelarako espazioak eta baliabideak, denborak eta berauetan garatzeko jarduera motak, ikasleen eta hezkuntza-taldearen taldekatzeak, gelarako arauak edota ohiturak aintzat hartzea, ziklo bakoitzaren berezitasunak errespetatuz.</p>	<p>X</p>
<p>G3. Ikus lengoaiak sormenez erabiltzea, ekoiztea, kultura ulertzeko, komunikatzeko eta adierazteko tresna gisa. Bizitzaren zehar ekimen plastiko eta ikus kulturakoetan parte hartzeko baliabideak eskuratu, bai eskolan zein eskolatik kanpo, bai zuzenean parte hartuz zein jardueren harrera kritikoa eginez (Arte Plastikoak)</p>	<p>IE16. Haur Hezkuntzara bideratzen den artefaktu plastiko-bisualak egiteko gai da, zeinetan hausnarketa materikoa, estetiko eta esperientzialaren bitartez bere ideiak praktikara eramateko gaitasuna erakusten duen.</p> <p>IE17. Ikus lengoaiak erabiltzen dituen estrategiak behin aztertuta, hauek bere ekoizpenetan lantzeko gaitasun erakusten du elementuak dituzten balore formalen (kolorea, forma, tipografia...) inguruko ezagutza barneratuz.</p>	<p>X</p>

<p>G4. Soinua eta musika oinarrizko parametroetatik eta ideiak, sentimenduak eta balioak transmititzeko bitartekari sinboliko gisa baloratzen ikastea. Hemendik, ikasle guztiek parte hartzera bultzatzen dituzten soinu eta musika praktika sortzaileak diseinatuz, ahots, musika tresna eta gorputz adierazpenaren bidez.</p> <p>(Musika)</p>	<p>IE18 Soinua eta musika oinarrizko parametroak desberdintzeko gai da entzumen aktibo gaitasunari esker.</p> <p>IE19 Musika eta soinu jarduerak diseinatu eta gauzatu dituzte, bere balio sinbolikoa erabiliz.</p>	<p>X</p>
<p>G5. Haurtzaroan mugimenduak duen garrantziaz sentsibilizatzea, gaitasun afektibo, kognitibo eta motorrak integratzeko elementu gisa.</p> <p>(Psikomotrizitatea)</p>	<p>IE20. Mugimenduak eta jolasak ikasteko tresna gisa duten garrantzia identifikatzen du.</p> <p>IE21. Jolasa eta mugimendua metodologia- eta ikaskuntza-estrategia gisa txertatzen dituzten hezkuntza-proposamenak diseinatzen ditu.</p>	<p>X</p>

4.- Testuingurua

Hezkuntzak, ikasleek kontsumo kontziente eta arduratsuari buruz hausnartzea eta beroni buruz ikastea bermatu behar duela ezartzen du LOMLOEk. ACNUR Agentziaren definizioaren arabera, kontsumo arduratsutzat jotzen da kontsumitzen ditugun produktu eta zerbitzuak kalitate, prezio, ingurumen-inpaktu, inpaktu sozial eta etikoko irizpideen arabera aukeratzea. Horrela, kontsumo arduratsuan oinarritutako hezkuntzak hiru alderdi izan behar ditu kontuan: etika, ekologikoa eta elkartasuna.

Funtsean, kontsumitu aurretik kontziente izateko eta pentsatzeko beharra azpimarratzea du helburua.

4.1. Integrazio arazoa

Zuk lan egiten duzun eskola publikoa Bidezko Elikadura (<https://justiciaalimentaria.org/donde-trabajamos/euskadi>) elkartearekin elkarlanean dabil azken urteotan. Besteak beste, eskola baratze bat jarri duzue (<https://www.deia.eus/bizkaia/kostaldea/2019/06/25/ortugintza-irakasgai/721962.html>), eskolako jantokiko elikagaiak aldatzeko prozesuan sartu zarete (<https://www.gureplateragureaukera.eus/>) eta beste hainbat ekintza egin dituzue. Halere, ekintza guzti hauei marko bat emateko beharra sentitzen duzue eskolan. Zehazki kontsumo arduratsuari buruzko hausnarketa plazaratzeko bertako ziklo guztietan. Horretarako, klaustroan ondorengo datua plazaratu zaizue:

Elikagaiak ekoizteko gaur egungo modua, batez ere, haragia eta esnekiak, berotegi efektuko gasen isurketen % 22ren erantzulea da, basoak suntsitu eta larre bihurtzeagatik. Kontsumo- eta ekoizpen-modalitate iraunkorrak bermatu behar ditugu, eta gizartea kontzientziatu behar dugu zeregin horretarako duen erantzukizunaz.

Hurrek txiki txikitatik kontsumo eta produkzio jasangarriak (GIH12) duen garrantziaz hausnartzea gakoa dela erabaki duzue. Horretarako, lehenik irakasleria gaian formatuko zarete (Hitzaldi bat jasoko duzue, bideoak ikusi etab.) eta gero ziklo bakoitzean hau lantzeko proposamen bat sortuko duzue.

Haur Hezkuntzako 2. zikloko hezitzaile gisa, zure lantaldean Kontsumo eta ekoizpen jasangarriaren sentsibilizazioa/kontzientzia bultzatzeko lengoiaia

espresibo ezberdinak biltzen dituen hezkuntza-baliabidea sortzea erabaki duzue. Lengoia hauek, gorputz, musika eta plastika adierazpenetan oinarrituko dira eta ikasleen aurrean aurkezteko pentsatuta egongo da.

4.2. Galdera eraginkorrak (3 rolak)

1. GIZARTEKO PERTSONA MODUAN, ARAZOAREN KONTZIENTZIA IZATEA ETA AZALTZEA. (LANAREN 1 ETA 2 PUNTUAK GARATU ETA POSTERRA AURKEZTU).
2. BESTE NAGUSIENGAN KONTZIENTZIA GARATZEA. Nola kontzientziatu beste nagusiak arazoarengatik gauzak egin behar dituztela? (BALIABIDEAREN SORRERA)
3. IRAKASLEAREN ROLA. Nola sustatu haurrengan kontsumo arduratsuko ohiturak? Bereziki ontziak birziklatzearekin, ingurumena errespetatzen duten materialak erabiltzearekin eta kontsumo ekologiko eta hurbilekoarekin zerikusia dutenak? (TXOSTENAREN GARAPENA)

4.3. Xedea

Arazo-gaiaren sentsibilizazioa sustatuko duen lengoia espresiboetan oinarritutako baliabide bat eraikitzea izango litzateke helburua. Haur-hezkuntzako ikasleen parte-hartzea bermatuko duena.

Horretarako, Bilboko Hezkuntza Fakultateko (BHF) ikasleek bi azpihelburu bete beharko dituzte:

- 1) Gaiari lantzeko etorkizuneko irakasle gisa Haur Hezkuntzako ikasleentzako kontsumo eta ekoizpen jasangarriaren sentsibilizazioa/kontzientzia bultzatzeko lengoia espresibo ezberdinak biltzen dituen hezkuntza-baliabidearen diseinatzea
- 2) Unibertsitateko ikasleek beraiek lengoia espresibo hauetan gaitasunak garatzea.

Bi helburu hauek lantzeko 3 produktu burutuko dira.

4.4. Amaierako produktuak

Esan bezala 4 azken produktu egongo dira:

- **Ikerketa**
 - Testuingurua (LANAREN 1. PUNTUA)
 - Arazoaren definizioa (LANAREN 2. PUNTUA)
 - Posterra aurkeztu.
- **Konponbidea sustatzeko aurkezpen praktikoa:** Ikasleek beste

nagusien aurrean baliabide bat aurkeztu behar dute, non haien helburua beste nagusiak kontzientzia da aukeratutako arazoa dela eta gizartearekiko konpromisoa ezagutaraztea.

- **Txostenaren garapena:** Jardueren proposamena (urteko plana edo epe txikiago baterako). Ikasleek irakasleen rola hartu behar dute eskolan jarduerak planteatzeko. (LANAREN 3. PUNTUA).
- **Bukaerako ondorioak eta hausnarketa.** (LANAREN 4. PUNTUA).

5.- Lanaren garapena

5.1. DAL-a garatzeko faseak

A. NORBERAREN KONTZIENTZIA SUSTATU. Testuingurua (Lanaren 1. eta 2. Puntuak)

A1) Ikasleek informazio bilaketa egin behar dute testuingurua definitzeko: Agenda 2030, Millenium Goals, Sustainable Development Goals...

A2) Ikasleek informazioa bilatu behar dute 12. ODS-ari buruz eta horren barruan aukeratutako azpi arazoari buruz.

A3) Lanaren 2. puntuan dagoen taula egin: Ikasgai ezberdinetan burutuko diren ekintza ezberdinen bitartez, ikasleek hausnartu beharko dute nola egingo lukete aukeratutako arazoaren kontra egiteko.

A4) AOI-ren ondorioak biltzen duen posterra egin eta aurkeztu, eta txostenaren 3. puntua garatu.

B. BESTE NAGUSIAK KONTZIENTZIATZEKO ROLA. Emaitzen komunikazioa (15. astean).

B1) 4. Astearen egindako posterraren komunikazioaz gain, 15. Astearen baliabide nagusiaren komunikazioa egingo da. Horren helburua beste nagusiak kontzientziatzea da. Orain ez zarete irakasleak umeekin. Argi izan "umeak" ez direla aurkezpen hori aurrera eramango dutenak.

Aurkezpenean UNIBERTSITATEKO IKASLEEK BERAIEK GARATU dituzten GAITASUNAK erakutsi beharko dituzte tribunal baten aurrean. Aurkezpenean, burututako prozesua azaldu behar da, eta historiaren/errekurtsoaren une batzuk edo alde aurreko ekintza batzuk aukera ditzakete, modu errealean egiteko, etorkizunean gauzatzeko dituzten gaitasunak erakutsiz. Beraz, kontuan hartuko dira moduluak bere baitan hartzen dituen ikasgaiak eta lanaren komunikazioan nolabait txertatuta egon beharko dira.

**C. IRAKASLEAREN ROLA. Arazoa edo problema analizatzea eta ebaztea
(Lanaren 3. puntua)**

C1) Haur hezkuntzako ikasgelan landu daitekeen lengoia anitzeko baliabide bat diseinatu (urteko planean egindako jarduera guztietan oinarritutako urte bukaerarako baliabidea: antzerkia, bideoa...).

- Ikasgelarako baliabide hori HH-ko ikasleek GIH 12a garatzeko eta aukeratutako azpi arazoari konponbidea emateko bideratuta egon behar da. Horrez gain, proposamen honek musikaren, artearen edota gorputz adierazpenaren arloak integratuko ditu, eta ikasleen motibazioan/sentsibilizazioan jarriko du arreta berezia.

C2) Ikasgaietatik jorratutako edukiak integrazio-egoeraren azterketarekin erlazionatuko dira eta tutoreekin partekatuko dira.

D. Ikasitakoaz eta jarraitutako prozesuaz ebaluaketa, ondorioen zehaztapena eta tutoreari entregatu beharreko lanaren azken bertsioa prestatzea.

D1) Ezagutzen azterketa

D2) Tutorearekin bilera ebaluazioa lantzeko: koebaluazioa eta autoebaluazioa

D3) Aurkezpenean egindako heteroebaluazioa eta koebaluazioa kontuan hartuz, unibertsitateko ikasleek ikerketa fasea eta baliabidearen diseinua jasotzen dituen **idatzizko lana entregatuko dute 15. astean**, une bakoitzean landu beharreko baliabideak, denborak eta gaitasunak zehaztuz.

5.2 KRONOGRAMA

4. ASTE. TESTUINGURUA + POSTERRA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
Psikologia	Psikomotrizitatea	Arte	Psikomotrizitatea	Musika
DAL azalpena eta antolaketa	APA Gestore bibliografikoak	Posterra egiteko estetika	Posterra egin eta bukatu	UDari buruz pentsatzen hasi
ASTE HONETAKO ENTREGA				
Entrega honek 4 atal izango ditu:				
<ul style="list-style-type: none"> • Taldeko lanaren antolaketa (asteleheneko lana) + eguneko akta. • Posterra egiteko artikuluen zerrenda (astearteko lana) + eguneko akta. <ul style="list-style-type: none"> • Akordio estetikoak (asteazkeneko lana) + eguneko akta. <ul style="list-style-type: none"> • Posterra. 				
ZER EBALUATU?				
Posterraren aurkezpena (5.astea, tutorearekin)				

9. ASTE. UNITATE DIDAKTIKOA + BALIABIDEA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
Didaktika	Psikologia	Didaktika	Musika	Arte
Unitate didaktikoaren azalpena	Oinarri psikologikoak	LOMLOE eta UD garapena	Baliabidea azaldu + Lana garatu	Baliabidearen inguruko ikuspuntu estetikoak eman
ASTE HONETAKO ENTREGA				
Entrega honek 4 atal izango ditu:				
<ul style="list-style-type: none"> • Unitate didaktikoaren testuingurua (klasea, ikastola...) (asteleheneko lana). <ul style="list-style-type: none"> • Oinarri psikologikoak biltzea (astearteko lana). • UD garapena (konpetentziak, helburuak, ebaluazio irizpideak...) (asteazkeneko lana). <ul style="list-style-type: none"> • Baliabidearen ideien zerrenda eta aukeraketa. • Aukeratutako baliabidearen planifikazioa egin. 				
ZER EBALUATU?				
-				

15. ASTEA. UNITATE DIDAKTIKOA + BALIABIDEA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
Psikologia	Psikomotrizitatea	Arte	Musika	Didaktika
Aurkezpenak				
ASTE HONETAKO ENTREGA				
<ul style="list-style-type: none">• Unitate didaktikoak egin• Baliabideak aurkeztu				
ZER EBALUATU?				
Unitate didaktikoaren txostena eta baliabidearen aurkezpena				

5.3 MAGISTRALEN ORDUAK

4. Taula. Magistral saioen orduak

ASTEAK	ORDU KOPURUA
4.	4
9.	4
15.	4

5.3. ENTREGAK

5. Taula. Entregak

ASTEAK	ZER ENTREGATU?
4.	Posterra aurkeztu tutoreari
9.	-
15.	Idatzizko txostena + Baliabidearen aurkezpena

5.4. Azken txostenaren egitura (begiratu lan plantilla)

Taldeak tutoreari entregatuko dion lanak ondorengo hauek barne hartuko ditu:

- Testuingurua (3 - 5 orrialde).
- 12.ODSak planteatzen duen arazoa eta azpigiak planteatzen duen arazoa aurkeztu (3-5 orrialde).
- Arazoari emandako konponbidea.

- Ondorioak eta hausnarketa.
- Bibliografia (APA 7th Style).
- Eranskinak:
 - o Posterra
 - o Tutorearekin egindako bileren aktak.
 - o Autoebaluazioa eta koebaluazioa.
 - o Eranskinak eta arazoa konpontzeko erabilitako dokumentazio osagarria.

Lanak unibertsitateko lan orok bete beharreko ezaugarriak izango ditu formatuari, beste batzuen ekarpenei, bibliografia aipamenei (APA 7th Style), zehaztasunari, argitasunari, eta abarri dagokienez. **Orri kopurua:15-20.**

5.5. Lanean kontuan hartu beharreko beste irizpideak

Hizkuntza gaitasuna

Hizkuntzaren erabilera zuzena ezinbestekoa da. Adierazpide linguistiko zuzena eskatuko da eta akatsak oso nabariak direnean, edo testua ulergaitza denean –beste hizkuntzetatik itzultzeagatik edo hizkuntzaren adierazpide okerra erabiltzeagatik-, lana ez da zuzenduko, ikasleak edo taldeak lana zuzen egin arte.

Aspektu hauek hartuko dira kontuan:

- Koherentzia, kohesioa, egokitasuna eta zuzentasuna
- Diskurtoaren ulergarritasuna
- Hiztegia eta Ortografia
- Ergatiboa eta komunztadura

Generoa: Adierazpenean generoa zaintzen duen forma zaintza komenigarria da.

Plagioa: Ezin da beste batek egindako obraren kopia edo imitazioa aurkeztu, norberak egina balitz bezala. Ikasleak zitazio arauak ezagutu eta erabili beharko ditu. Plagioa egin dela susmatzen bada, txosten osoa baztertuko da eta DAL-a ez da gaindituko.

6.- Ebaluazioa

6.1. Ebaluazio jarraia

Moduluko lana (diziplinarteko lana) amaitutakoan, talde bakoitzak dossier/txosten bat entregatuko dio bere tutoreari.

Ikasle guztiek egin behar dute moduluko lana, beraz DAL-a egitea beharrezkoa da (ikus DALa egiteaz salbuesteak, 4.orrialdean), eta honen nota irakasgai guztiei dagokien **amaierako notaren % 16 izango da.**

Kalifikazioan autoebaluazioa, koebaluazioa eta heteroebaluazioa kontuan hartuko dira. Horrela bada:

Jarduera	Ehunekoa
Txostena	40
Arazoaren aurkezpena (posterra)	15
Baliabidearen aurkezpena	25
Autoebaluazioa	10
Koebaluazioa	10

Begiratu Eranskinetan atxikita dauden autoebaluazio, koebaluazio eta heteroebaluaziorako (txostena eta aurkezpenaren balorazioa) tresnak. Horretaz gain, irakasleek modulu astean egindako lanak eta parte-hartzea baloratu dezakete.

6.2. Ebaluazio ez jarraia

Ikasle presentziala izateko dagokion datetan eta prozeduran uko egiten badio, ikasleak bere kabuz egingo du lana, tutorizazio gabe eta txostena ohiko epeetan aurkeztu beharko du.

Tutoreak adierazten dion egun, leku eta orduan lanaren defentsa egin beharko du. Kasu honetan ohiko eta ez ohiko deialdiak bermatuko dira.

Ikasleak dagokion epeetan uko egingo ez balu, ohiko deialdira aurkezteko aukera galduko luke, eta soilik ez ohiko deialdira aurkeztuko litzateke.

Irakasgairan bat gainditzen ez bada, baina moduluko lana bai, horri dagokion nota gorde egingo da ohiko eta ezohiko deialdira arte. DAL-a ez gainditzearen ondorioak irakasgai bakoitzaren gidan kontsultatuko dira.

OHARRA: Modulu honetako lantaldea UPV/EHU-ko Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak (SAE-HELAZ) sustatutako IKD i3 Laborategia berrikuntza proiektuen parte da, zehazki Haur Hezkuntza³: jasangarritasunetik kalitatezko hezkuntza eraikiaz proiektuan (Kodea: IKD321-09). Proiektu honetan 2021-2022 ikasturterako aurreikusitako helburuetako bat da zuen esku dagoen Diziplina Arteko Lan (DAL) hori eraldatzea.

7.- Oinarrizko bibliografia

- Akoschky, J.; Alsina, P.; Díaz, M. & Giráldez, A. (2008). *La música en la educación infantil*. Barcelona: Graó.
- Bará, J.; Domingo, J. & Valero, M. (2011). *Técnicas de aprendizaje cooperativo*. Taller de formación. Barcelona: Universitat Politècnica de Catalunya.
- Escamilla, A. (2009). *Las competencias en la programación de aula*. Barcelona: Graó.
- Escribano, A. & Del Valle, A. (2008). *El aprendizaje basado en problemas*. Madrid: Narcea.
- Evensen, D.H. & Hmelo, C.E. (Eds). (2000). Problem-based learning. A research perspective on Learning Interactions. Mahwah, NJ: Lawrence Erlbaum Associates.
- Hilsdale, N.J.; Erlbaum Pease, M.A. & Kuhn, D. (2010). Experimental analysis of the effective components of Problem-Based Learning. *Science Education*, **94(1)** pp.57-86.
- Riaño, M.E. & Díaz, M. (coord.). (2010). *Fundamentos musicales y didácticos en educación infantil*. Cantabria: Universidad de Cantabria. Servicio de Publicaciones.
- Vila, B. & Cardo, C. (2005). *Material Sensorial (0-3 años)*. Barcelona: GRAÓ

8. Eranskinak

I. Txostena ebaluatzeko errubrika

TALDEA:

ZEIN IKASKETA LORPENEAN OINARRITZEN DA ITEM HAU?	LANEAN, NON BALORATU?	EBALUAZIO ITEMA	LORPEN ADIERAZLEAK				
			1	2	3	4	5
IE1	3	Diziplinarteko proposamenak adierazten ditu giza garapen jasangarriari lotutako arazoei erantzuteko.					
IE2	1, 2	ODS 12ak eta aukeratutako azpigaiak aurkezten duen arazoa modu sakonean aurkezten du					
IE5	osoan	Zuzentasun linguistikoa (gramatikala eta ortografikoa) jarraitzen du.					
IE7/IE8	osoan	Informazioa iturri fidagarrietatik ateratzen du (liburuak edo aldizkariak), eta modu egoki batean egiten ditu aipuak eta bibliografia.					
IE12.	3	Hezkuntzako esku-hartze egituratuaren diseinuan, berdinekiko eta helduekiko elkarrekintza eta autonomiaren, askatasunaren, jakin-minaren, behaketaren, esperimentazioaren, imitazioaren, arauak eta mugak onartzearen, jolas sinbolikoaren eta heuristikoen inguruko ohiturak hartzea sustatzen duten alderdi teorikoak identifikatzen ditu.					
IE13	1,2,3	Hezkuntza-erabakiak idatziz defendatzen ditu, eta, horretarako, hezkuntzaren psikologiaren berezko ezagutzetan eta 0-6 urte bitarteko aldiaren ezaugarrietan oinarritzen du bere argudiaketa.					
IE14	3	Haur Hezkuntzako hezkuntza-arretarako, oro har, eta irakaste-ikaste prozesu espezifikoetarako proposamen					

		integratuak diseinatzea.					
IE15.	3	Haur Hezkuntzaren gelarako espazioak eta baliabideak, denborak eta berauetan garatzeko jarduera motak, ikasleen eta hezkuntza-taldearen taldekatzeak, gelarako arauak edota ohiturak aintzat hartzea, ziklo bakoitzaren berezitasunak errespetatuz.					
IE18/IE19	3	Musika eta soinu desberdintzen ditu. Jarduerak diseinatu eta gauzatzen ditu, bere balio sinbolikoa erabiliz.					
IE20/IE21	3	Mugimenduak eta jolasak ikasteko tresna gisa duten garrantzia identifikatzen du. Jolasa eta mugimendua metodologia- eta ikaskuntza-estrategia gisa txertatzen dituzten hezkuntza-proposamenak diseinatzen ditu.					
			Guztira		/50		

II. Aurkezpenak ebaluatzeko errubrika

TALDEA:

ZEIN IKASKETA LORPENEAN OINARRITZEN DA ITEM HAU?	ITEMA	LORPEN ADIERAZLEAK				
		1	2	3	4	5
ARAZOAREN POSTERRA						
IE2	Modu argi batean aurkezten du Agenda 2030 aurkezten duen arazoa eta guztion parte hartzearen beharra					
IE2	ODS 12ak aurkezten duen arazoa modu egokian eta ulergarrian aurkezten du.					
IE2	ODS 12ren barruan aukeratutako azpigai horrek gizartean aurkezten duen arazoa justifikatzen dute.					
IE3	Ikasleak ulertzen du hezkuntzak mundu jasangarriagoa, bidezkoagoa eta baketsuagoa sortzen lagun dezakeela.					
IE7/IE8	Informazioa iturri fidagarrietatik oinarrituta dagoela ikusten da aipua jarritz					
				Guztira		/25
BALIABIDEA						
IE3	Gizartean eragina izan dezakeen baliabidea aurkezten du					
IE4	Baliabidea testuinguru batean dauden pertsonen partaidetza sustatzen du					
IE6.	Lengoaia espresibo ezberdinen adierazpena entzuleriari egokitzeko gai da, aurkezpen publiko batean.					

IE16.	Haur Hezkuntzara bideratzen den artefaktu plastiko-bisualak egiteko gai da, zeinetan hausnarketa materikoa, estetiko eta esperientzialaren bitartez bere ideiak praktikara eramateko gaitasuna erakusten duen.					
IE17.	Ikus lengoaiak erabiltzen dituen estrategiak behin aztertuta, hauek bere ekoizpenetan lantzeko gaitasun erakusten du elementuak dituzten balore formalen (kolorea, forma, tipografia...) inguruko ezagutza barneratuz.					
Guztira				/25		

III. HAUR HEZKUNTZAKO 2. MODULUAREN KOEBALUAZIO- TAULA

Hurrengo taulan, **idatzi** eta **justifikatu** zure taldearen ikaskide bakoitzari jartzen diozun kalifikazioa (0tik 10era) hurrengo baieztapenei buruz:

TALDEA:

KOEBALUAZIOA		x		y		z		
1	Errespetuzko jarrera erakusten du taldearen barruan azaldutako ideiak adieraztean eta hartzean (IE9).	0-10	Justifikazioa	0-10	Justifikazioa	0-10	Justifikazioa	0-10	Justifikazioa
2	Dagozkion zereginak erantzukizunez betetzen ditu, helburu eta emaitza kolektiboak lortzeko (IE10).	0-10		0-10		0-10		0-10	
3	Gatazkei irtenbide bat emateko konponbide kolektiboak bilatzen laguntzen du, adostutako helburuak lortzeko (IE11).	0-10		0-10		0-10		0-10	
4	Taldean partaidetza aktiboaren jarrera mantendu du (Taldearen funtzionamenduan lagundu dut, bilerak prestatzen, entzuten, eztabaidak errazten, dinamizatzen,...)	0-10		0-10		0-10		0-10	

5	Taldearen eztabaidetan ideia berriak eta aipagarriak eman ditu	0-10		0-10		0-10		0-10	
6	Taldeak burututako bilera guztietara joan da esleitutako zereginak eginda	0-10		0-10		0-10		0-10	
7	Esleitutako lana egiteko behar bezain beste denbora eman du	0-10		0-10		0-10		0-10	
8	Egiaztatutako iturrietatik kontsultatu du materiala (zehaztu)	0-10		0-10		0-10		0-10	
IKASKIDE BAKOITZAREN BATEZ BESTEKO NOTA (ikasleek bete beharrekoa)									

OHARRA: ikasleek ko ebaluazioen batez besteko notak atera beharko dituzte taulan bertan agertzen den azken lerroan. Taula guztiak eranskinak bezala joango dira lanean.

IV. HAUR HEZKUNTZAKO 2. MODULUAREN AUTOEBALUAZIO- GALDETEGIA

IZEN-ABIZENAK:

Justifikatu zure buruari jartzen diozun **kalifikazioa** (0tik 10era) hurrengo baieztapenei buruz:

AUTOEBALUAZIOA		0-10	JUSTIFIKAZI OA
1	Ikasleak ulertzen du hezkuntzak mundu jasangarriagoa, bidezkoagoa eta baketsuagoa sortzen lagun dezakeela (IE3).		
2	Ikaslea gai da, partaidetza-metodoen bidez, beste batzuk motibatze eta ahalduntzeko, hezkuntza-aukerak eska eta erabil ditzaten (IE4).		
3	Ikaslea gai da haurren ahalduntzea sustatzeko.		
4	Ikaslea gai da, partaidetza-metodoen bidez, beste batzuk motibatze eta ahalduntzeko, hezkuntza-aukerak eska eta erabil ditzaten		
5	Ikaslea gai da haurren ahalduntzea sustatzeko.		
6	Taldeak burututako bilera guztietara joan naiz esleitutako zereginak eginda		
7	Esleitutako lana egiteko behar bezain beste denbora eman dut		

8	Egiaztatutako iturrietatik kontsultatut materiala (zehaztu)		
AUTOEBALUAZIOAREN BATEZ BESTEKO NOTA (ikasleak bete beharrekoa)			